

## Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure funtzezko baliabide Sin Rumbo garatzeko aukera emango digutenak dira, gure bezeroengana iritsi arte eta haiekin harremanetan jarri arte, haientzat ahalik eta bidaiarik onena bilatuz. Horrela, diru-sarrera batzuk sortzen ditugu proiektu honekin jarraitzeko eta enpresa gisa hazten jarraitzeko.

Horretarako, enpresa aurrera eramaten lagunduko diguten hainbat baliabide erabiliko ditugu:

- Baliabide fisikoak → lan egiten dugun bulegoa, erabiltzen ditugun ordenagailuak eta mugikorrak
- Baliabide intelektualak eta giza baliabideak → Izaro administrazioaren burua da, bezero bakoitzarentzat preziorik onenak bilatzekoa eta enpresa maila ekonomikora eramatekoa. Iraide marketin eta publizitate atalaz arduratzen da, sare sozialak eta web orria erabiliz. Naia bezeroekin hitz egiteaz eta gure enpresaren parte izatea lortzeaz arduratzen da. Eiderrek bere gain hartzen du bidaia baten antolaketaren atzean dagoen guztiaren ardura, hala nola bidaiaren kudeaketarena, dena aurreikusitakoaren arabera irritearena eta bidaiaren emaitzak bezeroarentzat onak izatearena.



- Finantza-baliabideak → enpresa hasteko gure aurrezkien zati bat erabili dugu, bankuari mailegu bat eta dirulaguntza bat ere eskatu ditugu.